

Nu!



Urriaren 2an hasiko
dira San Praizku Jaiak



Trenbide pasaguneak,
etengabeko kezka-iturri

LATXA
Ketxe denda

USURBILGO
DENDA
BERRIA

Gusto haundiz



Janari prekozinatuak
kongelatuak
bertako produktuak

Zubiaurrenea 2 Tel.: 666 301 803

EUSKARAREN
PIPER ETA
GATZA

EUSKARA
A LA CARTA

ETUMETA
æk
USURBIL

Barotu eta jan

Eraketa Menuak

- Eraketa Menua
- EKA
- Alkandora
- Hukeroa pertak

Partekaketa: 11.00-15.00
15.00-20.00

Kafe Nagusia, 41-leher
943 31 20 94

æk www.aeknet.net **902 36 22 94**

-Zerbitzu azkarra eta etengabea (24 ordu).
-Aseguru konpainia, ospitale eta erresidentzi guztiei zerbitzuak eskaintzen dizkiegu.
-Lekualdaketak orokorrean, aurrekontuen arabera.
-Behar diren izapide guztiak egiten ditugu.
-Gehitze berriak.

 **GONZALEZ**
EHORZTETXEA



C/ Munalurra 3 Bajo - 20170 Usurbil
Telf.: 943 362 163
Mugikorra: 608 167 792 / 600 388 652

ALUAL S.L

Ugalde
industrialdea,
Nº20- bajo
Telf: 943 370 506
Fax: 943 370 550
20170 USURBIL

 **ALUAL S.L.**

Aluminiozko aroztegia
Zubi termikoaren hausturarekin
Egurraren imitazioa
Poliuretanozko Belkopur leihoak

Txirrikitutik

Santixabel jaiak aspaldian pasa dira baina gure herrian oraindik jai giroaz gozatzeko aukera bada-go. Duela gutxi Santuenea auzoko jaiak hortxe izan ditugu eta hemendik lasterrera Aginagako San Praixku jaiak. Jaietan gehien gozaten dutenak haurrak direla ezin dugu ukatu; hortxe ikusten ditugu umeentzako jokoetan parte hartzen, erraldoi eta buruhandien aurretik lasterka, pailazoekin barrezka, txokolatadarekin ezpainak zikintzen...

1986ko Santixabeletako argazki honetan herriko zenbait gaztetxo, jaietan antolatu zen karta, partxis eta ajedrez lehiaketan parte hartzen ari dira (azkeneko urte hauetan ez al duzue horrelako ekintzen faltarik sumatzen?). Gaztetxo hauek dagoeneko ez dira horren gaztetxoak baina ba al dakizue nortzuk diren? Ezkerreko mahaian, kartetan jokatzeko ari direnen artean Jon Elorza, Antxon Egileta, Eusebio Ikutza, eta Mikel Elexpe, ezagutu ditugu eta eskubialdeko



EGILEA: EZEZAGUNA, 1986.07.01, SANTIXABELAK. JABETZA: NOAUA! K.E.

mahaian berriz, partxisean jan eta jan dabiltzanen artean, Jon eta Eneko Harreguy anaiak.

Zaloe Arnaiz Ibarguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Jose Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobiet, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Txokoaldeko pasagunea, uda partean.

Aurkibidea

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN **6. ORR.**

NEKAZARITZA ETA LANDALURRAREN ATALA **10. ORR.**

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA **12. ORR.**

EUSKARAZKO JARDUEREN GIDA **13. ORR.**

ERREPORTAJEA **14. ORR.**

Bilbo eta Donostia lotzen dituen trenbideak zortzi pasagune ditu Usurbilen.



BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO AUKERA **16. ORR.**

DENBORAPASAK **19. ORR.**

EKITALDI GARRANTZITSUENAK AGENDAN **22. ORR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



Porlana eta porlana

JAKOBA ERREKONDO

Garai bateko bertsolari edo poetaren larruan jarrita “usurbildarrek daukate sagardoa alkate” beharrean “usurbildarrek daukate porlana alkate” esango luke gaurkoak. Elizaldeko kaskoko etxeen atarietara inoiz belazeak, soroak eta baratzenak zirenetik alde ederra dago gaurko panoramara, baten batek esango lukeen eran, la putria! Etxe, urbanizazio, plaza, errepide, errotonda, pilotaleku eta espaloia galanki egin da azken urte hauetan. Elizaldeko kaskoaren inguruan bezelaxe, Aginagan, Zubietan... Udalean aritu direnek eta egun ari direnek ere “interes publikoa” aipatzen dute lan hauek egin behar direla erabakitzerakoan. Eta arrazoi izango dute, beren arrazoia, noski.

Etxeak eta obra horiek denak egin, egin beharrekoak izango dira, bai... baina nola egiten diren ere alde ederra dago! Berdearen alde ari naiz jakina! Etxe, pilotaleku eta eraikuntzak alde batera utzita, inguruak nola antolatzen diren lotsagarria da: Zubietako bi pilotalekuen arteko plaza erraldoia lekuko.

Berdea porlanak libre uzten dituen penditz eta bazterretara zokoratzen da, gehienetan erabili eta gozatzeko baino helburu estetiko soilarekin. Ingurumenarekiko beste jarrera bat eskatuz Francoren ondorengo udaleko zinegotziekin bilera batean haietako batek esandakoa ez zait sekula ahaztuko: lorategi eta

parkeak zertarako? natura eta basoa bertan dugu eta! Urrutiratu ditugu ederki, alajainena!

Kexa bakarrik ez eta aurrera begirako proposamen bat ere egin nahi dut Elizalderako. Lorategi estetikoez gain jendeak erabiltzeko moduko leku bat behar da hainbeste lagun pilatuta bizi den toki batean: zuhaitzen itzalean lasai egoteko, belarretan pasiatzeko, haurrek porlana ez den toki batean jolasteko, ilunabarreko edo egunsentiko xirrietarako, zakur jende gero eta ugariagoarentzako ...

Neure iritiz, inguruko etxe eta eraikuntza desdetxatik zuhaitz eta zuhaiskek altzoan aterpetuko duten belaze handiak behar dira. Ez da oraintxe inguruan toki egoki aukerarik baina eder askoak bai bi: Bizkarreko gaina eta Ikastola aurrea. Atalluko obra santuekin eskuratuko du Bizkarreko gaina herriak. Ikastola aurreko belardia, anbulategiko parkinaren gaikaldekoa, da bestea. Bi gune hauek isuri handirik gabeko zelaiak dira eta jendea oinez bertaratzeko egokiak. Diseinuan eta mantenuan helburu hauek jasotzea ez da zaila, nahi izatea nahikoa.

Porlanetan xahutzen diren milaka eta milaka euroak, ingururik ongi babestutako belardi eder pare batean inbertitzeko garaia badu herriak. Eska beza berorrek ere.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Udalaren oharra

Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana martxan jarrita dauka. Euskararen erabilaren normalizazio bide horretan, herritarrok ere badaukazue zer eginik. Udalean bezelaxe, etxejabeen komunitateetan ere batzarrak, kexak, errotuluak eta abar izaten dira.

Orain arte ez da hori guztia euskaraz egiteko ohitura handirik izan, baina bada garaia euskarak horrelakoetan ere tokia hartzeko.


Eta zuei horretan laguntzeko, UEMAK (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) eta Udalak “Idatzia” liburuxka dohainik banatzea erabaki dugu. Liburuxka honetan ondorengo gauzak euskaraz nola egin ageri da:

1. Batzar deiak eta aktak.
2. Batzarrera joateko ordezkaritza.
3. Jakinaraztekoak.
4. Ziurtagiriak.
5. Errekerimentua.
6. Balantze ekonomikoa.
7. Errotuluak.
8. Oharrak.
9. Araudia.
10. Hiztegia.

Beraz, oraingoan euskara etxejabeen komunitateetan ere sartzeko aukera aparta daukagu. Gainera, hizkuntzaren inguruko zabalentzari edukiz gero, jakin ezazue gure eta UEMAREN laguntza izango duzuela.

Liburuxka eskuratu nahi duzuenok udal txerara etorri edo deitu: 943 37 19 51.

Usurbilgo Udalak



IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: urriak 8. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** urriak 1.

Postaz: Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil - **E-postaz:** erredakzioa@noaua.com

Ika-mika !

Usurbil, goxokia zeinentzat?

O nartu berri diren arau subsidarioen harira, Koldo Azkoitia Diputazioko arduradunak adierazi du gure herria "karamelo" bat bilakatu daitekeela hainbatentzat, batez ere, Donostia inguruko biztanleentzat, datozen zortzi urteetan ia 1.000 etxebizitza eraikiko direlako. Kontua da, goxoki hori norentzat den.

Ez dugu ukatzen etxebizitzarena sekulako arazoa dela askorentzat, baina hori bezain egia da, gaur egun, karamelo handiena eraikuntzako enpresa eta promotoreentzat dela.

Arau subsidiarioak (AASS) lantzen direnean, datozen 10-12 urteetan herriaren hazkuntza nolakoa eta norainokoa izango den finkatzen da. Nagusiki aurreko udal-korporazioak landutakoetan (orain onartu direnak) etxebizitza eraikitzeke aukera aski zabala aurreikusi zen. Horrek ez du esan nahi etxe denak segi-

tuan egingo direnik, ezta guzti-guztiak eraikiko direnik ere. Esaterako, arrazoi ugari medio, aurreko AASSetan aurreikusitako etxebizitza asko eraikitze geratu dira.

Datozen 2-3 urteetan, batez ere, Txaramunto azpi eta Olarriondorako (500 inguru) nahiko aurreratuta dauden proiektuekin, gure ustetan, Usurbilgo hazkuntza naturalari aise erantzuteko moduan gara. Hortaz etxe hauek guztiak eraikitzen hasi ere egin ez direnean, zergatik orain, bapatean, beste 200 etxe egin nahi dira Ugarteondon? Noren beharrak asetu nahi dira?

6.000 milioi pezetako operazio hori justifikatzeko, udalak etxebizitzaren premiari erantzutea, eremu hori etxez inguratutako "irla" ez geratzea eta bertako industrialdea lekualdatzearen beharra argudiatu ditu. Denok ezagutzen dugu Ugarteondo eta, badakigu, hori ez dela

horrela. Udalaren helburua, Atalluko industriagunean udaberrian eskuratu dituen lurrekin lotua dago. Hango operazioa finantzatzeko ekin dio Ugarteondoko proiektuari, eremu horretarako aurreikusitako planak aldatuz, atzetik dabilzan enpresa eraikitzaile asegabeen gozamenerako.

Azken berri ez-ofizialak diotenez, gainera, Ugarte baserria bera bota eta, ordez, 20 etxebizitza egiteko asmoa omen du beste konstruktora espekulatzaile batek.

Hazkuntza promotoreen eskuetan soilik uzten bada, hemendik 10 urtera Usurbilgo biztanleria bikoiztu daiteke, horrek ekarriko duen guztiarekin. Herri izaera, kultura, hizkuntza eta nortasuna babestu nahi ditugunontzat bide oso arriskutsua da. Hori nahi al du usurbildar guztiak ordezkatzan ez dituen udal honek?

Usurbilgo UHL

Ika-mika !

5 urte Patxi "Ximio" espetxean eta oraindik epaiketarik ez!!

Urriaren 3an bost urte betetzen dira Patxi Ximio atxilotua izan zela, Jon Bienzobas, Asier Oiartzabal eta Argi Perurenarekin batera. Jon Bienzobas eta Argi Perurena Fleury-Merogis-eko espetxean daude, Asier Oiartzabal Fresnes-en eta Patxi "Ximio" Villapintin aurkitzen da momentu hauetan. Espetxean bost urte daramatzaten arren, oraindik ez dute epaiketarik izan eta jada urtebete igaro da haien kontrako sumarioa itxi zenetik. Beraien espetxealdiaren bostgarren urtea betetzear dela, Frantziako Prokuradoreak badaezpadako espetxealdia beste sei hilabetez luzatzeko eskatu

du lau euskal preso politiko hauentzat. Prokuradoreak luzapen hau arrazoitzeke denbora falta argudiatu du. Bost urte espetxeratuak eta urte bat sumarioa itxita, lau pertsona hauek soilik inplikatuak dauden sumario batean, denbora falta?? Lotsagarria!!! Badaezpadako espetxeratzear bost urtez luzatu izana salatzen dugu. Eta beste sei hilabete gehiago luzatu nahi izana are gehiago. Oinarritzko eskubideen kontrako beste eraso bat da hau, preso politikoen aurkako beste eraso bat, zeinean, oraingoan tartean herritar bat dugu jo puntuan.

Bestalde Oihana Lizaso eta Jokin Errasti irailean espetxez aldatuak izan dira. Galizako A Lamako espetxetik Oihana Soto del Real-era eta Jokin Valdemoro-ra eraman dituzte. Hilaren bukaeran betetzen dira bi urte atxilotuak izan zirenetik. Traslado honen inguruko argitalpenik eman ez duten arren, badaezpadako espetxealdia beste bi urtez luzatzeko helburuarekin egin denaren susmo bizia dugu. Jasan behar izaten duten desinformazioa zein badaezpadako espetxealdien luzapena tinko salatzen ditugu. Euskal Presoak Etxera!!!

Usurbilgo Askatasuna

TABERNA-JATETXEA NTXET

EGUZKITZ ,
2.17 USU II.
TEL. 3 37 3

- E un r k m nu k
- t r t k k
- l t r K n n tu k

Knk l

- L ntz r
Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
luzun k

Zubiaurrenea, 3 33 17 7





**AITOR
ALKORTA**

Txokoalde

Onttoak non dira?

Uda bukatu zaigu eta dagoeneko udazkenean sartuak gara. Pasa den egun hauetan izan omen da aldaketa hori, baina guk tankera hartua genion. Eguraldiaren aldaketa ez da izaten udazkena etorri denaren seinale bakarra. Gure auzoan jendea ugaritu egiten da gora eta behera. Batzuk, kurtso berria dela eta kirola edo ibilalditxoak egiten hasten dira udan jasotako kiloak botatzekotan edo oporretako nagikeriak utzi eta betiko erritmoa hartzeko. Beste batzuk, ordea, onttoak non jasoko ibiltzen dira.

Azken hauek ixilean ibiltzen dira, baina ederki miatzen dituzte erreka bazter eta mendi magalak. Aurten ez omen dugu perritxiku urtea. Pasa den urtean iraila izan zen gehien bildu genuen hilabetea, baina, badira batzuk urria izango denaren esperantzan dagoenik. Ez dakit nik urrian ere urri ez ote diran izango.

Sozidadean izaten da aukera errazana bada-

goen edo izan diren ikusteko. Hantxe agertzen dira gutxi badira ere. Majina bat mokadu goxo prestatu izan dira. Ea ba aurten ere aukerarik badugun probatzeko sikiera.

Bestalde pasa den astean, gure zaharrei askotan entzun izan diegun bezala tenporak izan ditugu. Nahiz eta aspaldiko ohitura edo usadioa izan, batzuk ilargi berriaren astebukaera izanten dute kontutan baina badira beste zenbait hurrengo izaten dutena eta Bizkaia eta Zuberoan aste osoa hartzen omen dute. Beraz tenporak esango zuten zerbait, baina, norberak bere irakurketa egin dezala.

Arantzazuko Pelloren esanetan, lehenengo hilabetea, giro busti xamarra izango dugu, bigarren hilabetea berriz, udazkeneko eguraldi sanoaz gozatzeko modukoa eta azken hilabetea berriz, negu ikutua hartzen joango omen da eta elurra ere gertu xamar izango omen dugu. Beraz, beti bezala, denetik izango dugu gure txoko honetan.

Kultura

Kaixo lagunak! Uda amaitu da eta oraintxe ditugu kultur ekintzak barra-barra, horien artean Donostiako Zinemaldia. Alderdi hau gus-toko duenarentzat datorren aste hau gozatzeko aukera izango du 17tik 25era bitartean. Gerturatu zaitezte!


Gure Kultur Etxea ere aurrera doa piskana-piskana, eta honek ere, ekarriko ote dizkigu kulturaz gozatzeko aukerak, hala espero! Aspaldidanik ibili da jendearen ahotan antzoki edo zinea jartzekoak zirela. Honek bultzada handia emango lioke herriari. Nabarmena da behintzat lehenagoko Udarregi zaharraren ordez jarri duten eraikina. Ea laister bukatu eta irekitzen duten, hainbeste urte-tan egitekoak zirela eta esan ondoren, bukatuko ahal dute behintzat. Itxura "polita" du, modernoa ikusiko dugu nolakoa duen barrunbea.

Beste bat arte eta gozatu kulturak eskaintzen digunaz.



**EKIÑE
OLAIZOLA**

Kaleberri



PP elkarte

Hogeita hamabost urte dira auzoko Elkartea sortu zela. 1969ko uztailaren 31ean inaguratu zuten eta ordutik, San Inaxiotan bazkari berezia antolatzen da bazki-deentzat.

Garai batean Errebal Txiki zen auzoko taberna eta bilgune bakarra. Hau itxi zutenean auzoko aiton-amonak Arotzanean aurkitu zuten babesa jokoan aritzeko. Arazo hau ikusirik, orain kokatua dagoen lekuan elkarte bat sortzea ezinbestekotzat ikusten zen.

Garai haietan, ordea, (ulertuko duzuen bezala) ezin zen elkarte kultura edo politikarekin nahastu eta horregaitik kirolaren izenean, pilota federazioan sartzeko erabaki zuten auzoko pilotari profesional Joxe Erramun Pagola, ohorezko lehendakari izendatuz.

Geroztik beti egon da antolatzen eta era guz-

tietako laguntzak eskaintzen herriko pilota elkarteari.

1985. urtean lokala erostea erabaki zen eta bazkide bakoitzak diru nahikoa jarri behar zuela ikusirik, usurbildarrei sartzeko aukera eskeini zitzairen, baina inork ez zuen nahi izan eta geroztik auzotarra izatea ezinbesteko baldintza jarri zen.

Gaur egun, ehun bazkide inguru gara eta ez dago gehiagorentzat tokirik. 50 urteko media izango du. Giroa eta etorkizuna ezin hobea da elkarteak duena (egunero bertaratzen direnei esker).

Arazo bakarra lekuarena da. Bazkide batzuk diote Txintxoenia izango zela egokia horretarako, etxe ederra plaza erdian... Markesak eskeiniko baligu, ohorezko bazkide egingo genuke.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Eserleku berriak

Aupa denoi; uda pasa ondoren, berriro ere Abetiko lanetara hurbildu behar; gehienak perezaxka batekin, baina aurrera egin behar.

Egia esan, aldaketa batzuk ere baditugu, auzoan; eserleku berriak jarri dituzte. Ondo etorriko dira edonorentzat. Zerbaitetarako balio izan ote dute gure eskariak?

Horrez gain, Atxegaldetik herrira goazela eta San Inazio auzo inguruan bada kamioi eta langile ugari, bidea zabaldu eta errotonda egiteko lanetan ari baitira bete-betean.

Gaiaz aldatuz, irailaren bukaerara heldu gara konturatzerako. 26an, igandea, bi aukera ditugu; bata Tuteran aldera joateko autobusa, egun pasa ederra eginez; eta bestea Ernioko erromerira joateko azken igandea. Garai batean koadrila ederrak joaten omen ziren eskusoinua lagun zutela umore ederrean, zahato ardoa eta jateko zerbait hartuta Andatzatik barrena. Ba... orain ere bada aukerarik nahi duenarentzat, goizean goiz Andatzako taldearekin tipi-tapa joateko,



Ernioraino iritsiko ez bagara ere, Zelatun aldean egongo da nahikoa giro, zelaian eseri, ogitar-teko ederra jan, zahatoa hustu edo mendiko ur freskoarekin lagunduz, trikitilaririk ere ez da faltako dantza egin nahi duenarentzat. Ea jendea animatzen den egun eder bat pasatzeko.

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



**AGUSTÍN
ESNAOLA**

Santutuea

Bukatu berri diren auzoko festak

Aurten ere, auzoan, asteburu bat jai giroan ospatu dugu. Auzotarren parte-hartze aparta izan da, betiko moduan, nahiz eta igandeko eguraldiak gehiegi lagundu ez.

Larunbatean hasi ziren festak eta umeak izan ziren nagusi, beraientzat izan baitziren antolatutako jokoak eta ekintzak. Eguerdian, azken urteotan ohitura den bezala, sardin-jana antolatu zen eta ez zela bat bera ere geratu saskian. Auzoko jendearen gosea ezin izan zen asetu baina eguerdi ostean urteroko mus txapelketa ospatu zen. Aurten ere jendetza izan zen, 30 bikote izan ziren eta guztien artean irabazleak izan ziren ere. Ikusten da ostiraletan Ibai Ondo elkartean sortzen den museko giroa, auzoko festetara eramaten dela ere.

Larunbat arratsaldean herri kirolak egon ziren ere, baina ilun abarrean aurtengo ekintza berriaren estreinaldia izan zen. Realaren futbol partida telebistaz botatzen zutela, komisiokoak, hau da Ibai Ondokoak, pantaila erraldoi bat jarri zuten, nahi zuenak elkarrekin partidua ikusi ahal izateko. Eta

gutxi izango balitz, han bertan afaltzea gogoko zuenak, aukera zuen ere. Letxua eta kostila sagardoarekin bustita izan zen menua. 40 bat auzotar elkartu omen zirela esan zidaten antolatzaileak. Eta, Realaren porrota ikusi ondoren denak

dantza pixka bat egitera. Aurten, batzuek eskatuta, leku aldaketarekin, plazan izan baitzen eta ez elkar-tearen aurrean, azken urteotan ohitura bihurtu zen bezala.

Igandea euritsu hasi zitzaigun baina antolatuta zegoena normal jarraitu zuen eta ohi dugunez auzotarren arteko bazkarira ia 100 pertsona gerturatu ziren. Eta arratsaldean piper dastaketaren exitoa errepikatu zen aurten ere.

Besterik gabe datorren urteko jaietan pentsatzen hasi beharko dute antolatzaileek.



Sagarrak



**EIDER
JAUREGI**

Urdaiaga

Udako oporraldiaren ostean berriro ere hemen gatoz auzoko berri ematera.

Azken hilabete honetan gauzak ez dira gehiegi aldatu inguru honetan. Dena den, ereindako uztak jasotzeko sasoia iritsi zaigu. Ikusi besterik ez dago. Aurtengo uztak ederrak izan dira. Tomate ugari, bainak ere bai, eta abar luzea, baina gehiena harritu nauena eta puri-purian dagoena, sagarrondoak dira. Aspaldian ez bezala sagarrondo guztiak sagarrez beteta daude eta asko erortzen hasiak dira gainera. Beraz, sagardo ugari eta bertako sagarrarekin gainera egiteko aukera izango dute herriko sagardozaleek.

Sagardoa ona edo txarra datorren urte hasieratik aurrera jakingo dugu, baina oraingoan behintzat ugari izango dela badakigu. Beharbada sagardotegi gehiago irekiko dituzte. Auskalo, dena den otarra eta kixkia hartu eta lanean hasiteko garaia iritsi da.



Propaganda ez dago erreza!

Santueneko festak bukatu orduko, hementxe ditugu San Praixkuak ate joka. Festa onak propaganda ere ona izan behar du. Lehen behintzat festen aurreko astebukaera izaten zen lan hori egiteko tarte aproposena.

Gazteagoak ginenean, Aginagako festak antolatze lanetan, lau bat zonaldetan zatitzen genituen gure inguruko herriak. Hor abiatzen ginen brotxa, baldekada bat kola eta kartel mordoxka hartuta, arratsalde pasa.

Orain kartelak jartzeko lan hori ez da erreza izaten, jendea paretetan kartelak ipintzea aurka azaltzen baita. Horren ondorioz, programa gehiago erabiltzen ote diren daukat susmoa. Kalea landu arren, medioen beharra ere garrantzizkoa izaten da hainbat lekutara zure mezua iristea nahi baduzu.

Baina propaganda festak ez diren ospakizunen-tzako ere egin behar izaten dugu. Eta nahi izaten dugu gure propagandak oihartzuna izatea. Baina gertatzen da batzuetan komunikabideek beren eskuetaraino eramandako berririk ez dutela eskaintzen. Neri mingarria egin zait Usurbilen ospatu dugun Palestinarekiko elkartasun egunaren berri



komunikabideetan azaldu ere ez izana. NOAUA! oso ondo portatu zen gurekin, "Diario Vasco"n ere azaldu zen herriko kronikan, baina ez "Berria"k eta ez "Gara"k ez ziguten tarterik eskaini.

Asko kostata antolatzen diren ekitaldi xume batzuk interesanteak ez direla dirudi. Komunikabideetara txartel eta propagandak eramanez, gauza dira zuri lerro bakar bat eskaini gabe uzteko. Militantzia lanean ari diren pertsonen beste errespeto bat merezi dute komunikabideen aldetik.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Endika Abril Txapelketa, finalerdietan

Udarak azken pausuak ematen dituen honetan, Zubietan, plaza libreko jokoak ere amaitu egiten zaizkigu. Plaza librean jokatzen den txapelketarik garrantzitsuenetarikoa "Endika Abril" erreboteko txapelketa dugu, eta jadanik azken fasera iritsi gara.

Bi multzo izan ditugu, lau ekipokoa bakoitza. Lehendabiziko multzoan, Ustaritzeko ekipoa izan da multzoko buru eta Sarako ekipoa ondoren. Esan behar da, Zubietako ekipoa izan dugula multzo honetan, paper ona eginez baina hala ere, ezinezkoa suertatu zaie final erdietara iristea.

Bigarren multzoan, Hazparneko ekipoa izan dugu nagusi eta ondoren, Villabonako taldea sailkatu da.

Beraz, eta beti ere eguraldia lagun, datorren igande, hilak 26, bi finalerdiak jokatuko dira, goizeko bederatzietan hasita. Lehendabiziko partiduan, Hazparne eta Sarako taldeek neurtuko dituzte beraien indarrak eta bigarren partiduan, Villabona eta Ustaritzeko taldeak arituko dira, nor baino nor. Finala, gauzak ondo joanez gero eguraldiarekin, urriaren 3an jokatuko da Villabonako plazan.



Esan behar da, Endika Abril txapelketak, aurtenean bere berrogehitabat edizioa betetzen duela, beraz, klasiko bihurtu da, Gipuzkoan antolatzen diren pilota txapelketen artean. Bertan, gaur egun, Iparraldeko talderik onenak biltzen dira eta kalitate handiko torneo bat bilakatu da, errebote-zaleen gozamenerako.

Azkenik, animatu nahi ditut NOAUA!ko irakurleak eta Usurbildar guztiak, agertu daitezen Zubietako plazara datorren 26ean, eta disfrutatu dezatela erreboteaz. Ziur nago goiz atsegina pasako duzuela.

Zubietan



MIKEL
BENGOETXEA

Sagardotarako sagarrak eta sagardoa

Kaxkotik pixka bat aldentzea nahikoa da, gure inguruko sagarrondo eta sagastiek garai honetan eskaintzen duten kolore eta usain ikuskizunaz gozatzeko. Baserritako ukuilu eta mandio txokolak ezkutuago eta ezezagunago zaizkigun harren, hasi dira lehenengo sagarrak jo eta honen muztioarekin buki eta kupelak betetzen.

HISTORIA

Usurbilen oraindik hainbat baserritan mantentzen da sagardoa egiteko ohitura. 1996 urtean, Olatz Altunak idatzitako 'Usurbilgo baserriak agerian' lanean jasotako informazioaren arabera, sagardoa 28 baserritan egiten zen. Gaur egungo egoera berriz, baserri horietan, honokoa da (ikus aldame-neko taula).

Euskaldunok sagardoa egiteko ohitura aspaldikoa dugu. Idatzizko lehenengo aipamenak XIII. mendeko izkribuetan aurkitzen dira. Sagardoaren jatorria berriz, ez dago batere argi. Honi buruzko teoria eta iritzi asko dago. Batzuk diotenez, Egipto, Bizantzio eta beste zenbait tokitan Kristo aurreko urteetan sagardoa edateko ohitura zabaldua omen zen eta gerora grekoek ohitura honekin jarraitu omen zuten.

Beste ikertzaile batzuen arabera berriz, sagardoaren jatorria zeltek Europa osoan zabalduz edari batean dago. Edari hau sagar puskak, belar eta abarrez lagundurik uretan utzi eta bere kasa egiten omen zen.

Garai honetan sagastiak eta sagardoa aberastasun iturri ziren. Sagardoa etxean kontsumitzeko erabiltzeaz gain, errenta ordaintzeko, itsasora eramateko... erabiltzen zen.

Baina historian zehar beste labore edota aktibitate batzuk sagastien lekua ordezkatzuz joan dira. Honela, XVII. mendetik aurrera, Euskal Herriko hegoaldean, batez ere, artasoroak zabaltzen joan ziren eta honekin bate-

	Baserriak	Tolarea	Sagardoa		Sardotarako sagarra		Sagar soberakinak saldu
			Etixerako	Saltzeko	Ettxekoa	Kanpoko	
Kale- Zahar	Agenteazpi		x		x		x
	Arratzen		x	x	x	Auzokoa	
	Arratzen sag.	x	x	x	x	x	
	Arratzen Betti	x	x		x		x
	Egihze Hauendi	x	x		x	Auzokoa	
	Egoleta Hauendi	x	x		x	Auzokoa	
	Sagar	x	x	x	x	x	
	Usaskue		x		x		x
Urteta		Ez dute sagardorik egiten.					
Aguinaga	Amitzi Zahar	Ez dute sagardorik egiten.					
	Etchebest	Ez dute sagardorik egiten.					
	Corostidi	x	x	x	x		x
	Sanismeneea	x	x		x		x
	Urdara	x	x	x	x	x	
	Urkamendi	x	x		x		x
	Zurutz	x	x		x		x
San Esteban	Aldatza	x	x		x		
	Aialdena	x	x	x	x	x	
	Berrizabarrena I	Ez dute sagardorik egiten.					
	Berrizabarrena II	x	x		x	Auzokoa	x
Txiki- Erdi	Babiloni	Ez dute sagardorik egiten.					
	Intxaintxabal	Ez dute sagardorik egiten.					
	Olano	x	x	x	x	Auzokoa	
Zubieta	Aracta	x	x	x	x	x	
	Etcheberr		x		x	Auzokoa	x
	Ingoen	x	x	x	x	x	
	Soroarte	x	x		x		x
Elizalde							
Juanantzonea			x		x		

ra ardo edateko ohitura Euskal Herri guztira zabaldu zen sagardoaren kalte-rako.

Gipuzkoa izan da, hala ere, sagarrondoak landatzea eta sagardoa egitearen ohitura ondoen gorde duen herrialdea. Nahiz eta, joan den mendean batez ere, jasandako gainbehera handia izan.

1930 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak sagarrondoaren landaketa eta sagardoaren ekoizpena sustatzeko saiakerak egin zituen. Baina edari honentzat guda zibilaren ondorengo urteak oso gogorrak izan ziren, Francoren erregimenak bere ekoizpena

eta kontsumoa debekatu baitzituen. Garai berdinean, papera eta eraikuntzarako erabiltzen zen egurra lortzeko baserrietan pinu asko landatu zen, kasu askotan pinudiak sagastiengatik ordezkatzuz. Bestalde, beste motako edarien kontsumoak (ardo eta garagardoa gehien bat), 50 urteko hamarkadan gelditzen ziren bizpahiru sagardotegien desagerpena eta beste motako tabernen irekiera bultzatu zuen.

Faktore guzti hauen ondorioz 60. hamarkadan Gipuzkoan sagardo produktioa inoiz baino kaltetuago zegoen.

Hala ere 80. hamarkadatik aurrera

Gipuzkoan sagardotegiak berriro modan jarri ziren. Hainbat baserrietan sagardoa beraien ekonomiarentzat osagai garrantzitsu bihurtu zitekeela ohartu ziren. Baina zoritxarrez, gaur egun antzinako sagastiak desagerturik daude eta sagardoa egiteko sagarra kanpotik, hau da, Asturias, Galizia eta Frantziatik ekarri behar dute.

GIPUZKOAN SAGARDO EKOIZPENA
(sagardo litro/urteko)

1920 urtean	30.000.000 litro
1967 urtean	1.250.000 litro
1998 urtean	8.000.000 litro
2003 urtean	10.000.000 litro

Nahiz eta azken urteetan sagardo produktioak gorakada handia izan, mende hasieran baino % 67 gutxiago ekoizten da.

Atal honen egileak: Aitziber Matxain, Ametza Larrañaga. Usurbilgo Udalaren Nekazaritza eta Garapen Ekonomiko Sailaren babesean.



NAHIZ ETA AZKEN URTEOTAN SAGARDO PRODUKZIOAK GORAKADA HANDIA IZAN, MENDE HASIERAN BAINO %67 GUTXIAGO EKOIZTEN DA.

Barietateak eta hauen ezaugarriak

Sagardoa egiteko sagar gozo, garratz eta mikatzen arteko oreka lortu behar da. Parametro hauek eragin desberdina dute sagardoaren prozesuan:

- Azukrea ezinbestekoa da sagardoaren alkohola edo etanola lortzeko. Hartzidura alkoholikoaren bidez azukrea etanol bihurtzen da. Sagar barietate guztiek azukre kantitate egokia dutela esan genezake.
- Garraztasunak, besteak beste, mikroorganismoengan eragina du. Zukua garratza bada legamiak lan egingo dute eta hauek hartzidura alkoholi-

koaren bidez azukrea alkohol bihurtuko dute. Zukua ez bada garratza bakteriek lan egingo dute eta hasierako azukrea hartzidura malolaktikoaren bidez azido laktikoa eta azetiko bihurtuko dute. Ondorioz, sagardoa oso garratza izango da.

- Zenbat eta sagar mikatzagoa izan orduan eta fenol kantitate handiagoa izango du. Fenolek zapore astringentea eta gorputza ematen diote sagardoari. Sagardoaren garbiketan lan egiten dute eta gainera bakterizida naturalak dira.

Kalitatezko sagardoa lortu ahal izateko sagar barietate bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea ezinbestekoa da.

Adibide moduan:

GARRATZAK

Urtebi handia, Sagar beltza, Astarbe

MIKATZAK

Mozoloa, Mikatza, Gezamiña

GARRATZ- MIKATZAK

Urdin, Goikoetxea, Txalaka, Moko

Iaz Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako sagar garratz eta mikatzen prospekzioa bat egiten hasi zen. Bertan barietate interesgarri batzuk aurkitu ziren eta horietako bat Usurbilen.

Dirulaguntzak sagardotarako, sagarrondoan landaketarako

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero sagardotarako, sagarrondoan landaketarako dirulaguntzak ematen ditu. Horretarako sagardotarako sagarrondoan mintegira, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ibarrola-Goikoa baserria, Laurgain auzoa, Aiara jo dezakezue edota telefono zenbaki honetara deitu: 639 10 14 14.



Bizi-kalitatea hobetzea gure esku dago

Kale seguruak haurrentzat izan da Mugikortasun Iraunkorraren Astearen lema nagusia, Eusko Jaurlaritzak udalerriekin batera garatu duen kanpaina. Helburua, begibistakoa: errepideek hiri eta herrietako haurrentzat dituzten arriskuak murriztea.

Kanpaina honek, ordea, baditu bestelako xedeak:

-Hiri eta herrietan automobilak zentzurik gabe erabiltzeak eragiten dituen poluzioaren eta energia-baliabideen kontsumoaren inguruko sentsibilitatea areagotzea.

-Nire autorik gabeko herriak dituen ingurumen-onurak egiaztatzea eta oinez, bizikletan eta garraiobide publikoetan ibiltzea gaur egungo hiri-mugikortasunaren ohituren ordezkotza egokiak direla baieztatzea.

-Plan eta garraio-sistema berriak garatzeko esku hartzen duten eragile guztien arteko elkarriketa sustatzea.



KANPAINAN ZEHA, AUTOENTZAT ITXITA EGON DA HERRI-GUNEA.

Era didaktikoan garatu den kanpaina

Europako Mugikortasun iraunkorra-
ren Asteari loturik, hainbat ekitaldi antolatu dira gure inguruan. Ibon Beristain Soziokultura alorreko zinegotziak azaldu digunez, "partehartzea adin-talde guztietara zabaltzea izan da gure nahia".

NOAUA!. Mugikortasun Iraunkorraren Astea herri askotan ospatu da, baita Usurbilen ere. Zeintzuk izan dira aste honetan, gure artean, sustatuko diren ekitaldi eta ekimen nagusiak?

Ibon Beristain. Hilaren 16tik 22ra ospatu den mugikortasun iraunkorraren aste honetan ekintza eta ekimen desberdinak izango dira Usurbilen. Kaxkoa oinezkoa edo peatonala izango da hainbat egunetan. Ikastolan hainbat ekintza didaktiko egingo dira. Santueneko jaiak direla aprobeitatzuz, ekimen ludiko batzuk antolatu ditugu. Astelehenean (hilaren 20an) garraio publikoa dohain izango da Zarautz zein Donostiaruntz

eta bukatzeko, irailaren 22an, festa txiki bat gaztetxoentzat buruhandi, joku, txololatada, kalejira... eta bizikleta baten zozketa eta guzti.

N. "Kale seguruak haurrentzat" lema da Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Departamenduak aukeratu duena. Beraz, haurrak izango dira kanpaina honen protagonista nagusiak, ezta? Akaso heziketa kontua delako...

I. B. Protagonista nagusiak haurrak eta gaztetxoak izango diren arren, ukaezina baita heziketa adin horietan hasi behar dela, partehartzea adin-talde guztietara zabaltzea izan da gure nahia. Horren lekuko garraio publikoa erabiltzearen aldera egiten dugun gonbita eta nola ez, garraio pribatuaren erabilera egoki baten beharraren deia.

N. Mugikortasun Iraunkorraren Astearen kaxkoa ixteko asmoa dago. Epe laburrean ez-ohiko neurri hori mugaga-

be bihurtuko al da? Kaxkoa oinezko izango al da noizbait?

I. B. Kaxkoa ixtearen neurri hori behin betiko bihurtzearen asmoa aztertzen ari gara. Proiektu zehatzik ez dagoen arren behin baino gehiagotan eztabaidatu eta landu den proposamena da hau. Baina zer gertatuko den oraindik ezin esan. Hala ere ez legoke gaizki, ezta?

N. Bada garraio publikoa erabiltzeko aukera. Autobus eta tren zerbitzuak eskura ditugun arren, Usurbilen ere autoa al da jaun eta jabe?

I. B. Zoritxarrez autoa dugu jaun eta jabe Usurbilen ere. Garraio publikoaren eskaintza gero eta hobea den arren kotxerik gabe ezer gutxi. Autobusa eta trenaren ezinbesteko kasuetarako bakarrik eta bizikleta... izan ere hain da ugaria Usurbildarron bidegorri sarea. Dena den halabarrez joerak aldatzen hasi beharrean gaude, bai horixe!

L T ILL E

ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K

IZTTTX K L F . (3) 3 2 35-3 33
E H F M I 21



MIKEL
IZ GI E

ELEKT RAT TE

0 1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24
el 11 - 11 11 11

Euskaraz jarduteko zerbitzu guztiak gida batean

Irailaren 15ean 'Euskarazko jardue-
ra eta zerbitzuak' izeneko gida aur-
keztu zuten Buruntzaldeko
Euskara Batzordeek. 16 urte arteko gaz-
teei zuzenduta dagoen gida honek
Buruntzaldeko euskarazko eskaintza bil-
tzen du. Usurbilgo informazioa agertze-
az gain, Buruntzaldeko gainontzeko
herrietako informazioa ere jasotzen du.
Usurbilen, guztira, 534 gida banatu dira.
Buruntzalde osoan, 6.950.

Buruntzaldeko Euskara Batzordeek
gida bat atera dute, bereziki, eskualdeko
16 urte arteko gazteei zuzendua. Gida
honetan, Buruntzaldean dagoen denbo-
ra libreko euskarazko eskaintza azaltzen
da. Bi zati ditu gidak: lehenengoan,
herriz herriko informazioa agertzen da;
eta bigarrenean, Buruntzaldeko gainera-
ko herrietako informazioa laburtuta.

Jarduera ugari gida

Jarduera ezberdinak atalka daude
antolatuta: denbora libre, akademiak,

dantza, bertsolaritza, kirola eta abar.
Labur esanda, jardueraren bat euskaraz
egin nahi duenak, zein aukera dituen
ikusi ahal izango du gida honetan.

Euskaraz jarraitu

Buruntzaldeko Euskara Batzordeek
atzo prentsaurrian esan zutenek, eskual-
deko ia haur guztiek euskaraz ikasten
dute gaur egun, baina eskolaz kanpo ere,
euskaraz bizi ahal izateko bideak jarri
nahi dituzte. Aurtengoa, hirugarren gida
da eta "gehiago eta hobeto" egiteko
asmoa azaldu dute udal arduradunek,
eta horretarako jendearen laguntza eska-
tu dute eta hutsuneren bat ikusi edo
gomendioren bat duenari Udaleko
Euskara Zerbitzuan jakin arazteko eska-
tu diote. Urnietan egin prentsurrekoan
Usurbilgo Soziokultura alorreko zinego-
tzi-arduraduna izan zen, Ibon Beristain.

"Etiketik hasi behar delako"

"Euskarazko Jarduera eta Zerbitzuen
Gidarekin" batera, Buruntzaldeko



BURUNTZALDEKO HAINBAT UDAL ORDEZ-
KARI. ESKUBITARA, IBON BERISTAIN
SOZIOKULTURA ALORREKO ZINEGOTZIA.

Euskara Zerbitzuek "Etiketik hasi behar
delako" kanpainaren berri eman zuten.
Euskara ikasi edo euskara maila hobetu
nahi duenak aitzakiarik ez du.
Euskaltegian matrikulatu eta ikasturtean
zehar %80ko asistentzia ziurtatzen due-
nak matrikulazioaren zati handi bat
aurrez dezake.

Informazio gehiago Soziokultura
departamenduan: 943 37 19 99.



ELKARTASUNAREN OLIBONDOA. Artzabalgo Parkean topatuko duzue palesti-
